

XXXX. LIZARDI SARIA. 2021

Patxi
Zubizarreta

Ilustratzailea: Antton Olariaga

ZERRIA



Zerria

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra
(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2022ko otsailan

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri Beltza

Maketazioa:

Erein

Azala eta barruko irudiak:

Antton Olariaga

© Patxi Zubizarreta

© EREIN. Donostia 2022

ISBN: 978-84-9109-788-4

L.G.: D 115-2022

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Zerria

Patxi Zubizarreta

Ilustratzailea: Antton Olariaga

erein

XL. LIZARDI SARIA. 2021

LEHEN ATALA

~Alpeak~

*Animalia harrituek begirada
zerriarengandik gizakiarengana zuzendu zuten,
eta gizakiarengandik zerriarengana;
eta, atzera ere, gizakiarengana;
baina ordurako ezin zen
bata besteagandik bereizi.*

GEORGE ORWELL, *Abereen etxaldea*

Albisteak haginka egin zidan. Albisteak, behin batez, arrano bat ehizatu zuen gizona ekarri zidan gogora; izan ere ehiztaria espantu handiz ohartu zen hegaztiak, lepoaldeari atxikia, erbinude baten buru hezur higatua zeukala. Antza, arranoa erbinudeari oldartu zitzaion, baina ugaztunak, bere larri hartan, bizkor sartu zizkion hortzak. Beharbada arranoak hegan alde eginez erreakzionatuko zuen eta berehalakoan erbinudea airean eramango zuen, larruzko lepoko baten antzera, artean bizirik eta noizbait askatuko zelakoan: hala izatera, eszena miresgarria osatuko zuten biek ala biek ere zeruan gora. Baina litekeena ere bada arranoak erbinudea lurrian bertan moko ukaldika akabatu izana eta, iristen zen neurriraino, atzaparkadaka larrutzea eta erraiak ateratzea: hala izatera, arranoak eskeleto gero eta murrizagoarekin bizitzen jarraitu beharko zuen, hala zeruan nola lurrian, harik eta lepoan soilik erbinudearen kaskezur maiztua geratu zitzaion arte, harik eta, behin batez,

ehiztariak eskopeta-tiroz hil zuen arte. Halatsu ni ere, deskubrimenduaren albistea jaso nuen une beretik. Zeren albistek letaginak eta atzaparrak baitzeuzkan, eta ni indarrez zeharkatu, eta arrastaka eramán baininduen.

—Bereket! —Gaspard zen, eta asaldaturik eman zidan berria telefonoaren beste aldetik—. Gorpu batzuk deskubritu ditut Tsanfleuron glaziarrean, momifikatuak, gutxienez bi. Objektu bat baino gehiago ere bai, aldamenean. Zatoz polizia iritsi baino lehen!

Entzuna nuen Frantzia Erdialdeko Mendilerroan, Marguerideko bihotzean, elur ekaitzak bidean harrapatu zituela dantzaldi batetik zetozen hiru ahizpa eta, zakurra-ekin batera, elkarri besarkatuak eta hormatuak hil zirela. Eta harrezkero tokiak Hiru Ahizpen Mendatea izena duela (*Le Col des Trois Soeurs*). Entzunak nituen, halaber, antzinagoko kontuak ere, esate batera Austria eta Italia arteko Alpeetan gezi batez hil zuten Ötzi edo Similaungo gizonaren momiarenak; edo, urrunago, Himalaiako gailurretara bidean izoztu izan diren mendigoizaleen istorioak, giza balentrien oroigarri, hilotz betiko. Eta entzuna nuen, azkenik, leiak ez, baina kobre bitrioloaren eflubioak hainbat meatzariren gorpuak bere hartan gorde izan dituela hanhemenkako meatzetan. Baina Gasparden albistek, gorpuen kokagunearen hurbiltasunak ustekabea harrapatu eta zeharkatu ninduten.

Urria azkenetan zen, arratsaldea bezala, eta ni Rodano glaziarrean ari nintzen lanean. Agerpenaren tokitik

urrunegi ez, alegia. Ez dakit lankide glaziologoei zer aitakiatu nien, baina gogoan dut arrapaladan abiatu nintzela Tsanfleuron aldera. Ingurumari miressgarri haietan, errepide sigi-sagatsuan barrena, Johann Wolfgang Goethe idazleaz oroitu nintzen. Hura ere inguratu zen paisaia izoztuotara, «bitriolo urdin koloreko arrakalak» bertatik bertara ezagutzera. Naturak gizakiaren neurria zehazten lagunduko ziolakoan, agian. Edo giza izatearen labirintoa altueratik hobeki ezagutzearren. Edonola ere, asmo gorenak harenak, eta artistikoak. Baina argi zegoen Tsanfleurongo hildakoen helburuak prosaikoagoak izan zirela: seguruenik, azienda bila irtengo ziren –ardi, ahuntz edo behi– eta, hiru ahizpen antzera, elur erauntsiak harrapatuko zituen... gaur arte. Bizitzaren beste arrunkeria bat. Goethek paisaia kristalezkoa zela idatz zezakeen –azukrezkoa agian–, baina bikote galduarentzat gatzetzkoa gertatu zen inondik inora.

Ordu erdia gabe, Tsanfleuron glaziarraren mihian nengo eta, autotik irten gabe, Gaspard aparkalekuan esku imintzioka bistatu nuen. Azkartu nendin, presatu nendin. «*Vite!*».

—Argazkilari bat bidean da. Goazen, Bereket! Lehenengoak izango gara agertokia arakatzen. «*Schmell!*».

Glaziar gehienak urtze bidean daude; azukre koxkorak esne berotan bezalaxe desegiten ari zaizkigu krakateko artean. Hilzorian daude haiek eta, paradoxikoki, gertakari horrexek hildako batzuk utzi zituen agerian, hilerri ezin

zuriagoan. Opari, agian, izotzezko masa horiek hainbeste maite ditugunontzat.

Gaspard eta biok lekuko pribilegiatuak ginen eta bi gorpuzkin identifikatu genituen: ile xerlo gaztainakarak eta urdinak nahas-mahas, kapusai bat, oihal zatiak eta gorputz adarrak postura sinesgaitzetan... , seguruenik elur jausi batek eragindako hausturen ondorioz.

—Eta hau...? —entzun genuen bat-batean—. Zer da hau? —Argazkilaria etorri berria zen. Emozioarekin, ez ginen haren etorreraz jabetu ere egin.

Izotza palaz apur bat kraskaturik, beste gorpuzkin bat topatu genuen, baina honakoak zalantza eragin zigun: hura ere gizakia ote zen, edo sarrtoa, orkatzen bat, apika. Gaspardek aho ttikiarekin esan zidan, bere ustetan eskeletoak figura humano durduzagarria zeukala, baina arropak falta zituela eta agian hartz batena ere izan zitekeela. Baina argazkilaria ahotsa nagusitu zen berriro ere:

—Basurdea segika izango zuten —amaitu zuen, tinkotasunez, eta elurbiziaren hipotesia zalantzagotu zigun.

Edonola ere, toki talismaniko, kasik sakratu hartan, hiru gorpuzkinekin batera, hiru objektu agertu ziren: sakelako erloju bat —6:43 edo 18:43 ordu fatidikoan gelditua—, kristal berdeko botila bat eta, zapietan bil-bil egina, liburuxka bat. Eta gauza haiek guztiek are gehiago humanizatu zituzten hondakinak.

—Liburua eraman dezaket, Gaspard? —zuzendu nintzaion irakasle kuttunari, antxume begiradaz—. Jakin-gose

handia pizten dit. Neure begi-niniak baino hobeki zainduko dut.

Polizia heldu berria zen eta sirenaren argi berdotz-ur-dinak argazkilariaren flash ezin zuriagoekin nahaspilatzen hasi ziren, denak ere ilunaren urratzaile.

—Ados, baina bihar, lanak hasterako, toki berean uztekotan —onartu zidan Gaspardek.

Eta nik artean ezin jakin deskubrimenduak hasi baino ez zirela egin. Ezin jakin albisteak dagoeneko haginka egina zidala. Eta ez ninduela askatuko, arranoak erbinudea edo erbinudeak arranoa bezalaxe.

—Zu ez zaude hemen. —Afaritan, glaziologoaren artean ez genuen beste hizpiderik izan: bi gorpuak, balizko piztia, zorrigaitzeko akabera, izotzaren heriotza ezta... Baina Gaspardek berriro ere argi igarri zidan. Deskubrimenduak haginka egin zidanetik, liburua erlikia baten antzera gordea nuen eta hildakoen baitan barneratzeko gakoa iruditzen zitzaidan. Orrialdeak haien gisara zabaldu, eta astiro irakurtzeko gutizia nuen.

Genevako unibertsitatean ezagutu nuenetik, pasio berak elkartu gintuen Gaspard irakaslea eta biok. Bizkorra da bera, baikorra, eta adina salatzen dion azal pergaminatua gorabehera ez balitz, atzealdetik begiratu gero, oraindik ere gizon gaztea eta segaila dirudi. Hotzak bideratu zuen gure arteko harreman beroa. Izotzak. Hala bada, paisaiaren lurrazalean estetoskopioa jartzearen artea ikasi nuen berarekin, gure belarriek natura auskultatu nahi balute bezala.

—Zer gertatzen da ura hezur bihurtzen denean? Zer da glaziar bat? Funtsean garai guztien narrazio trinko bat

da, zuhaitz enborretako uztaien antzekoa, baina oraindik ez gara gai alfabeto hori behar bezala irakurtzeko. Erlojugileak gara denborarekin lan egiten dugulako, astrologoak gara zerua lurrean aztertzen dugulako, eta hain zuzen ere horrexegatik ere gara geologo.

Halakoak esaten zituen eta nik, bakarrean, eransten nion kromatologoak ere bagarela, kolorerik gardenenak bilatzen ditugulako. «Ororen Iparrean», horixe da gure goiburua. Hotza behar dugu bizi ahal izateko. Oroitzapenak. Aitorpenak. Naturarenak eta gureak.

Haur denboran, Kolonian, Gaspard mutikoari kristalezko bola bat oparitu zioten, eta barnean: izei baso bat, etxola bat eta egurketan dabilen amona bat. Bolari eragitean, barne urtsuan halako elur maluta handiak sortzen ziren eta, une batetik bestera, paisaia berdea irinezko bihurtzen zen, negua hurbiltzen zen halako ekaitz pausatu batean. Uda minean ere, Kolonian elurra goza zezakeen mutiko bakarrenetakoa zen Gaspard.

Haur denboran, Addis Abebatik Frantziako Annecyra ekarri nindutenean, Alpeen magalean, mira-mira eginik geratu nintzen lehen elurtzaren aurrean. Liluraturik, nakarrezko kutxatxo batean elur maluta bat sartzea lortu nuen. Kutxa preziatua berehala izozkailuan gorde nuen, diamante bat barnean. Uda minean ere, elurra ikus zezakeen Annecyko neskatila bakarra nintzen.

Adina gorabehera, lankide egin ginenetik, Gaspardek eta biok Katie Paterson artista eskoziarra maitatzen ikasi

genuen. Patersonek Islandiako Vatnajökull glaziarrean hainbat grabazio egin zituen, baina batez ere telefono bat izotzari etengabe konektatua utzi zuen eta, edonoiz eta edonon, ororen iparrean dagoen glaziarraren bihozkadak entzuteko aukera eskaintzen digu.

Atsegin genuen, halaber, Carmen Braden ikerlari eta musikari kanadarrak laku izoztuetan, zeropeko 40 graduan, egindako lana. Ederra da hidrofono batekin eta Zoom H4n grabagailuarekin jasotako kriofoniak entzutea: kinketakoak, karraskak, pilpirak eta txintxin hotsak... Bradenek material horiekin egindako lan instrumentalak ere gogoko baino gogokoago ditugu, *First Frost* edo *The Ice Season* bezalakoak.

Hargatik guztiagatik maite genituen glaziarrak, kontziente izan arren mundu zuri huraxe zela bi pertsona haiei azken haginkada eman ziena. Baina horrekin batera liburu bat neukan neure gelan zain. Erlikia bat. Elur malutaren antzekoa. Eta hargatik errepikatu zidan Gaspardek lehenagoko esana. Bai baineukan presakako kontu bat, suaren antzera premiazen ninduena.

—Ez, zu ez zaude hemen.